

## Intxaurrondo

## Abendurako egitarau biribila

Plazara Goaz Intxaurrondo-ko euskara taldeak egitarau biribila osatu du hil honetan. Besteak beste, Josu Tellabideren hitzaldia, irteera, hitano ikastaro laburra eta Beñat Achiaryren eta Bigira taldearen emanaldia antolatuta dira.


**H**itano ikastaroa hilaren 11an hasi zen arren, oraindik beste bi saio egingo dira, hilaren 18 eta 20-an hain zuzen ere. Saiok Bernart Etxepare plazako Ipar Haizea auzo elkarteko egotzan egingo dira 19.00etatik 21.00etara. Antolatzaileen esanetan, "ikastaroa laburra da, baina aldi berean oso praktikoa". Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutakoa, 1.000 pezeta ordaindu behar dira ikastaroa egiteko. Izena emateko honako telefonoetara hots egin dezakezu: 943-


### Hitano ikastaroa hasi berria da

289654, 943-322138 edo 943-282192.

Bestalde, hilaren 14an, ostirala, Josu Tellabide etnologoak Intxaurrondoko etxe zaharrei buruzko hitzaldia eskainiko du Larrotxenen 19.30etatik aurrera. Hurrengo egunean, berriz, intxaurrondotarrrek auzoa gertutik ezagutzeko primerako aukera izango dute, izan ere, Arantzadiko etnologoak gidatutako irteera egingo da Intxaurrondon barrera. Hitzordua Intxaurrondo kalean ipini dute 09.00etan. Azkenik, hilaren 19an Beñat Achiary zuberotarraren muskaz gozatzeko aukera izango da Larrotxenen (20.00etan). Egun berean 19.00etatik aurrera, Bigira taldeko neska Intxaurrondo Zaharrean ibiliko dira. Ez da, beraz, girorik faltako datozen asteetan auzoan.


Hilaren 15ean Josu Tellabidek gidatutako ibilaldia egingo da auzoan barrera.





## JATETXEA BORDA

Sorabilla auzoa z/g ANDOAIN • Tel.: (943) 59 28 60



- Ezkontzak, enpresa bazkariak, senitartekoan bilerak, agur-afariak... egin ahal izango dituzu.
- Diskoteka zabalik ostirala eta larunbata gaez.

# CASA BARTOLO



**Gure berezitasuna haragi eta arrainak parrilan**

Fermin Calbeton kalea 38  
Tel.: (943) 42 17 43  
20003 DONOSTIA